



LABek instituzioei dei egiten die negoziatorako euskal esparrua gauzatzeko estrategia bat definitu dezaten

Gure zerbitzu publikoak eta lan harremanak definitzeko Espainiar Estatuak zer inposatuko begiratu baino, euskal negoziazio esparrua errealitate bilakaraziko duen estrategia abian jar dezaten interpelatu nahi ditu LABek hemengo instituzioak

Espainiar Estatuako Funtzio Publikoko atzoko mahaian Montoro ministroak ELA, CCOO eta UGT sindikatuei (LABek, gure esparruari inposatutako negoziazio markoa izanik, ez du mahai horretan parte hartzen) zerbitzu publikoetako langileei bosgarren urtez soldatak izoztuko zaizkiela jakinarazi zien.

LABek, aitzitik, ohartarazi nahi du **arazoa hori baino askozaz larriagoa dela**, arazoa da Espainiar Gobernuaren **inposizioz** enplegatu publikoen lan baldintzetan **soldatak** izoztuko egongo direla, baina baita **lanaldia** handituta eta beraz **lanpostu publikoen galerak** ere jarraituko duela. Eta arazoa da aurten **LOMCEaren** inposizioz gure eskola umeei curriculum arrotza ezarriko zaiela. Eta arazoa da inposizioz ere **errola zibilak** pribatizatuko direla. Eta arazoa da Arartekoa edo Euskalmet bezalako **erakundeak** Espainiar Gobernuaren inposizioz **kolokan** egon daitezkeela. Arazoa beraz, marko juridiko politiko honetan, **zerbitzu publikoen eremuan erabakitzeko eskubidea Espainiar Gobernuari dagokiola**, eta guri inposizioa jasatea baino ez dagokigula.

Baina LABen ustez **arazorik potoloena bertoko instituzioen jarreran dago**: bai Nafar Gobernuak baita atzo bertan ere Urkulluri entzun ahal izan genionez Jaurlaritzak ere, bat egiten baitute euskal herritarren borondatearen gainetik Espainiar Gobernuaren inposizioa instituzionalizatzen duen egungo esparru juridiko politikoarekin.

Beraz, gure zerbitzu publikoak zein gure lan baldintzak bertan erabaki ahal izatea aldarrikatzen duen sindikatua garenez gero, Espainiar Estatuak zer egingo begiratu baino hemengo instituzioei begira jartzen gara. **Hala, Iruñea zein Gasteizko Gobernuari gure zerbitzu publikoak zein gure lan baldintzak zein diren gure esparruan erabaki ahal izan ditzagun estrategia bat martxan jarri dezatela exijitzen diegu**. Zalantzarik gabe, zerbitzu publikoetako lan harremanen esparruaz ari garelarik, estrategia hori gure esparru guztietan inolako kanpo injerentziarik gabe negoziazioei bide ematek, eta Enplegu Publikoaren Lege Propioak egitean negoziatorako eskubidea aitortzetik pasatzen da lehen lehenik.

Interpelazio hori berori egin nahi diegu atzokoan euskal esparrutik Espainiar Gobernuko Funtzio Publikoko **mahai horretara joan ziren sindikatuei ere**, esparru horrek ordezkatzeko duen inposizioari bizkar eman eta euskal negoziazio esparrua egikaritzeko strategiarekin bat egin dezaten.